

KUKAI-TANTTAKA

Bat egin dute Kukai dantza taldeak eta Tanttaka antzerki taldeak hirugarren aldiz. 1937 eta *Otehitzari biraka* ikuskizunaren ostean *Hnuy illa...* iritsi berri da agertokietara, Joseba Sarrionandiaren poemak oinarri dituen ikuskizuna.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Kukai-Tanttaka

Hitzak dantzatzeko bidea

ANTZOKIAN ESERIKO ZARA, beldurrez agian. Zer espero dezakezu euskal dantza, poesia eta antzerkia uztartzen dituen zera batetik? Itxarongo duzu pixka bat, argiak itzaliko dira; ofeko ahotsak eta irudi proiektatuek ferekatuko dizkizute, apika, zalantzak. Gauza asko taula gainean, helburu bakarrarekin: zu zeu eserlekuan iltzatzea, hunkituta, nork daki. Eta joango zaizkizu apurka aletzen, uztartzen, hitz egiten mugimenduak, musikak, poemak. Mugimenduak ere poetikoak izan daitezkeelako, euskal dantzetatik abiatutako pausoak egungo kezke ere mintzo daitezkeelako, antzerkiak herri baten sentimenduetan tatuaturik dauden hitzak eta esperientziak konpartitzeko balio lezakeelako. Eta ez zara izutuko, badelako intimitaterako, sentsualtasunerako, poesiarako tarterik. Ametsen erbeste gozora bilduko zara.

Tanttakako Mireia Gabilondorekin eta Kukaiko Jon Mayarekin bildu gara, banan-banan hitz egin dugu, aurrestreinuz aurrestreinu dabiltzala, lerro hauek argitaratzean burutu berria izango den Donostiako Antzerki Azokako estreinaldiaren atarian. Mayak aipatzen duenez “lan hau ulertu behar da Kukai eta Tanttaka aurretik dugun elkarlanaren bidean”. 1937 izan zen lehenengo lana, duela zazpi urte. *Otehitzari biraka* izan zen bigarrena, eta *Hnuy illa...* ikuskizuna batez ere elkarrekin lan berri bat egiteko gogotik hasi da. “Argi genuen elkarrekin lanean jarraituko genuela, eta horrela hasi ginen pentsatzen zeri buruz”.

Bi taldeen arteko elkarlanak Joseba Sarrionandiaren testuak oinarri hartzen baditu ere, ez zuten hura abiapuntu izan. Bidean topatu

zuten, lan berria prestatzen hasi zirenean. Mayaren hitzetan, hasieratik nahiko garbi zeukaten dantzan gehiago landu nahi zituztela bikote harremanak, pertsonen artekoak... eta hori poesiarekin egin nahi zutela. “Gauzak irakurtzen hasi ginen, dantza batzuk probatzen, eta tartean Sarriren zenbait testurekin lan eginen. Pixkanaka bere obran sartzen joan ginen, hainbeste dauka, hain antza eta hain ona... Engantxatzen joan ginen, eta ikusi genuen ikuskizun osoa hortik joan zitekeela”.

Mireia Gabilondo ere ildo berean mintzo da. “Poesia erabili nahi genuen ikuskizuna egiteko. Poeta horien artean hasieratik Sarri zegoen, niretzako euskal poesian erreferente bat delako. Eta konturatu ginen hainbeste zeukala Sarri berak, bakarrik ere nahikoa zela. Gainera horrelako zerbaitek merezi zuen”.

Gabilondorentzat ez da izan Sarrionandiaren lanera gerturatzeko lehen tentaldia. Orain dela hamabost urte poesia errezitaldi batzuk egiteko asmoarekin aritu zen Asier Hernandezekin elkarlanean. “Azkenean ez zen inora iritsi, baina ibili ginen Sarriren poesiarekin bueltaka. Batzuetan zikloak horrelakoak izaten dira: denbora behar izaten da berriro norabait iristeko, eta ikuskizunean entzuten diren ahotsen artean Asier Hernandezena dago”.

Urteak ordea ez dira debalde pasatzen eta Sarrionandiak berak liburuak kaleratu ditu epe horretan. “Liburu batzuk oraindik ez zeuden duela hamabost urte, beste poema batzuekin ibili nintzen lanean, baina ordukoak ere sartu ditut oraingo honetan. Bere poesia guztia ez nuke esango, baina gehientsuen behintzat begiratu eta berrirakurri dut; Zailena aukeraketa egitea da, baina bide polita izan da”.

Poesiak ikuskizun honetan leku berezia duen arren, funtsean dantza ikuskizuna dela azpimarratu dute biek, eta hortik ulertu behar dela sortze prozesua ere. Mayak aurreko lanekiko aurrerapausoa ikusi du, edo beste zerbaitek probatzeko beharra behintzat. “Dantza tradizioaletik gatoz eta aurreko ikuskizunetan oso modu koralean egin dugu lan, talde oso homogeneoa ikusten zen agertokian. Horregatik baneukan gogo beste modu batera lantzeko, pertsona bakoitzak nortasun gehiago harrezala agertokian eta bakarkako, binakako, hirunakako gauzekin jolastea”.

Tankera horretako irudiak lantzeko bidean murgildurik poesiarekin egin zuten

topo. “Dantza estilo hau islatzeko bidea izan da”. Aldi berean ideia beretik musika ere sortu da, eta azkenean musika eta dantza elkartu dituzte.

Gabilondoren iritziz dantza ikuskizuna da, batez ere, *Hny illa...* “Lan batean sartzen naizenean politena izaten da norabidea niretzat ere sorpresa izatea. Sarriren unibertsoan sartu eta bere poemek zer esaten didaten, zer emozio eragiten didaten... Ikuskizun hau puzzle txiki baten modukoa da, gai asko hartu ditugu eta horrekin bide bat egin”. Sarrionandiaren poemetako gaien artean, nola ez, erbestea dago. “Bada poema bat horri buruz portugesez idatzita dagoena: argi nuen hasieratik sartu egin nahi nuela eta fado bat egiteko gainera. Baina beste batzuk bidean aurkitu ditut eta bat-batean tartetxo bat eduki dute, nik neuk espero ez nuen”.

Sormen puzzlea

Asko dira tankera honetako sortze prozesuan bat egin beharreko piezak: testuak aukeratu, dramaturgia definitzen joan, offeko ahotsak grabatu, irudiak sortu, koreografiak prestatu... Eta horri guztiari forma bateratu bat eman. Maya eta Gabilondo hastapenetik etengabeko hartu-emanen egon dira, batetik dantzak probatzen, sortzen eta aukeratzeko, eta bestetik gidoiari eta testuen erabilerari forma ematen. Momentu batetik aurrera bi bideek bat egin dute entseguetan.

Gabilondok intuizioa du lanerako bidela. “Ez naiz oso metodikoa. Norabidea definitzeko hitz bat aukeratzekotan emozioa aipatuko nuke nire kasuan”.

Mayaren esanetan hasieratik izan dute elkarlana. “Prozesuan gaudenean eta ondoren ere Mireia eta biok erabat elkarrekin goaz, nahiz eta gainontzeko eragile guztiak beren kabuz ari diren. Lan prozesu honetan adibidez gu biok ideia lantzen ari ginen bitartean ni dantzariekin ari nintzen jada gauzak probatzen, eta aldi berean Mireia poemak irakurtzen ari zen, aukeratzeko... Elkarri asko eskatzen diogu. Iristen da momentu bat gu jada dantzak nahiko osatuta dituguna, gidioa ere nahiko aurreratua, musika prest... Eta denak aldi berean jartzen gara martxan”.

Tradizioa sorbide

Deigarria da halaber euskal dantzen aldeko Kukairen apustua. Mayak argi du Euskal Herrian oso dantza tradizio aberatsa dugula.

Laguntzaile faltarik ez

Ikuskizunak lan talde garrantzitsua izan du eskura, hasierako intuizioei forma emateko. Besteak beste, musika Iñaki Salvadorrek sortu du, eta eszenografia berriz, Fernando Bernuesek; offeko ahotsetan Mikel Laboa eta Ruper Ordorikaren kolaborazioa izan dute. Mireia Gabilondok azaldu du oraingo honetan garbi zeukatela hitza sartu nahi zutela. “Modurik onena grabatzea da, bestela zuzenean egin behar duzu eta dantzan ari diren bitartean hitz egitea zaila da. Garbi izan nuen hasieratik batzuk kantu bihurtu nahi nituela eta beste batzuek azpian musika izango zutela”.



“Hala ere guk momentu honetan egiten duguna ez da dantza tradizionala, ez da folklorea, hortik gatozen arren eta gure esparru naturala hori den arren. Lan berri honetan uste dut beste aurrerapauso bat badagoela eta beste lengoai batzuekin uztarketak oraindik eta nabariagoak direla”.

Kukairen sorreran bertan suma liteke, Mayaren esanetan, tradizioetik abiatutako sorkuntza propioa lantzeko grina. “Hasierako asmoa hori zen, 1937 gaiagatik eta testuingurugatik tradizionalena da, *Otehitzari biraka* beste urrats bat da eta *Hnny illa...* beste bat. Dantza tradizionala erabiltzen dugu lan tresna modura. Dantza garaikidea, klasikoa edo flamenkoa dantza estiloak dira, hori nahi duzuna espresatzeko erabil dezakezu. Horrela ulertuta guk momentu honetan euskal dantza tradizionalarekin lan egiten dugu urratsak eta mugimenduak bilatzeko, baina hortik aurrera askatasunez jokatzeko dugu”.

Asmo horren bidean gakoa suertatzen ahal da dantza ikuskizuna antzerkiaren ikuspegitik lantzea. Tanttakak eskaintzen ahal dio hori prozesuari, Gabilondoren eskutik. Maila horretan *Hnny illa...*-n une koralekin batera bereziki azpimarratu dira bikote harremanak, une intimoak eta sentsualak, interpretazio aldetik lan gehiago eskatzen dutenak. “Beraiei agian gehien kostatzen zaiena da, dantzariak izanik, eta gainera euskal dantza tradizioaletik abiatuta, zaila delako: euskal dantzan ez da emozioa erakusten, edo ezer gutxi”. Lan ugari eginez zeharkatu dute hirugarren ikuskizun honetara iritsi arteko bidea: “Dantzariak pixkanaka ikasi dute adierazkorrago izaten aur-

Ikuskizunean, une koralekin batera bikote harremanak azpimarratu nahi izan dituzte. Erroka da hori dantzariarentzat, interpretazioan koska bat gorago igo behar dutelako.

Dantzariarentzat erroka da une intimoak agertokira eramatea, interpretazioan handiago eskatzen dutelako

pegiarekin edo dantza egiteko moduarekin. Hori askotan esaten diet, nahiz eta pausoak aurrez ezarrita egon, oso ezberdina dela modu batera ala bestera dantzatzea. Oraingo honetan biren arteko koreografia batzuk egitera jo dugu. Ezberdina da”.

Jon Mayarekin batera Vanesa Castaño, Eneko Gil, Ibon Huarte, Alain Maya, Urko Mitxelena eta Nerea Vesga dira Kukai taldeko dantzariak. Kukai sortu zenetik, Tanttakarekin jarraitutako ildoaz gain, ugariak izan dira burututako bestelako lanak. Mayak gogoan du nola hasi ziren 2001. urtean lanean. “Nik banuen buruan ideia bat, baina saiakera bat zen, ez zegoen aurrekari askorik, dantzari oso gazteak ziren... Azkenean pixkanaka-pixkanaka joan gara gure esparruan kokatzen. Lehenengo proba egitetik urtean berrogei bat emanaldi egitera pasa gara. Momentu honetan talde sendoa gara, bai maila artistikoan baita antolakuntzan ere”.

Gaien sinbolismoa

Ez du erraza izan behar jendearen, balizko ikusle potentzialen gogoan biziki iltzaturik egon daitezkeen gaiak lanerako oinarri izatea. Mayak aipatzen duenez sakontzea eskatzen du. “Azaletik landu ezin diren gaiak dira, bestela oso ebidentzian gelditzen baitzara. Oharkabean pasatzen ez diren figura edo gertaera batzuk dira, ikuskizuna ateratzen den momentutik jendearen arreta eta kuriositatea pizten du, eta horrek ardura sortzen du”. Oteitza ala Sarrionandia izan, bakoitzak badu bere oihartzuna. “Oteitzaren kasuan bere figurak atzetik dakarren guztiarekin, aldeko eta kontrako zera guztiarekin, sumatzen zen inguruko pisua. Kasu honetan gehiago izan da ardura pertsonala, errespetua; ez da Sarriri buruzko ikuskizuna, Sarriren obra erabili dugu eta pertsonari errespetua zor zaio. Alde horretatik borondate onarekin, errespetuz eta intentzio onarekin egin dagoenez jendeak horrela hartuko duela espero dut; egia esan orain arte ez dugu inolako arazorik eduki”.

Hnny illa... ikuskizunaren sormen prozesuari buruzkoak gustura entzun baditugu ere, misterioari lekua utzi behar zaio, ikusleak bere gogoeta egin dezan. Gabilondoren hitzak ekarriko ditugu hortaz, lerro hauei amaiera emateko: “Hainbeste hitz egin eta gero beti esaten dut ikuskizunak ikusi egin behar direla, ez du ezertarako balio kontatzea nik zer egin dudana, zer egin nahi nuen... Egina dago eta orain ikusi egin behar da, eta bakoitzak bere konklusioak atera ditzala”. Horra lerro hauen irakurlearentzat gonbita, eta lekukoa. ■